

EUSKALDUN BATEN BAKAR JOLASAK

AMERIKAKO PANPETAN

(Al «Coro Euskaro» de la Sociedad Laurak-Bat de Buenos Aires)

Euskal-erriko lur maite artan
 Jayo nintzan baserriyan,
 Itzal aundiko inchaur arbol bat
 Dago gure atariyan:
 Aren ondotik irten ta noiznai
 Maldako gaztañariyan,
 Edo, sagarrrik onenak jaten
 Luberriko sagastiyan,
 Arbol tartian bizitu nintzan
 Gazte denbora guztiyan.

Denak utzi ta etorri nintzan,
 ¡Lur au ikusi nai nuan!
 Aritz tantayak, pago lerdanak,
 ¡Nola ez izan goguan!
 Orañ arzantzan Ameriketean
 Arrancho baten onduan,
 Eguna pasa larrian eta
 Jiratzen naizen orduan,
 Nere begiyak gozaten dira
 Aldameneko *ombú-an*.

Ainbesteraño tristetutzen naiz
 Eremu¹ zabal oyetan,
 Arbolak, mendi eta errekek
 Falta diran zelayetan,
 Non etorri ta eseritzean

Ombú-tzar onen zañetan,
 Edo igo ta osto tartian
 Bere adar bikañetan
 ¡Ené! ¡Amacho! Nik nola esan
 Zenbat gozatutzen detan!

Chabol ondoko *ombú* laztana,
 Maitatzen zaitut gogotik
 Eta biyotza erdibitzen zait
 Joatian zure ondotik,
 Nere burura ekartze dezun
 Oroimen gozuagatik.
 Zure ichura nai det ikusi
 Ez dizut eskatzen frutik²
 Ni emen bizi naizen artian
 ¡Arren! egon zaitte zutik!

Nere lagunik maitatuena
Ombú laztana, zu zera,
 Argatik nator zure kolkora,
 Ni malkuak isurtzera,
 Iruditurik naramazula
Atariko inchaurpera...
 Beti izango zaitut goguan
 Bañan joan nai det ostera,
 Euskal-lurreko arbolpe artan
 Nere ezurrak uztera.

PEDRO M.^a OTAÑO.

(1) Desierto. (2) Alortik.